

Bataio, ezkontzak, Aiherra, Isturitz Donamartiri eta Luzaiden iraultza garaietan



Xipri **A**rbelbide **M**endiburu*

Bataio ezkontzak Aiherra, Isturitz eta Lekuinen 1792tik 1802 arte. 1820an Euskal Herriko parrokia guzietan kaier berezi bat bete zen Iraultza denboran, 10 urtez, elizak hetsirik egon zirelarik, egin bataio eta ezkontzetaz. Hor ikusten da zein ziren gordezka ari izan ziren apezak zein etxetan ibiltzen ziren, zer adinetan bataiatzen zituzten haurrak.

Giltza-Hitzak: Iraultza. Apezik ez. Bataio. Aiherra. Donamartiri. Luzaide. Isturitz.

Baptêmes et mariages à Aiherra, Isturitze et Lekuine de 1792 à 1802. En 1820, dans toutes les paroisses d'Euskal Herria, il existait un cahier spécial dans lequel ont notait tous les baptêmes et les mariages célébrés durant les 10 ans de la Révolution pendant laquelle les églises restèrent fermées. On peut y voir quels étaient les curés qui exerçaient en cachette, dans quelles maisons ils se réunissaient et à quel âge ils baptisaient les enfants.

Mots Clés: Révolution. Sans curés. Baptême. Aiherra. Donamartiri. Luzaide. Isturitze.

Bautizos y matrimonios en Aiherra, Isturitze y Lekuine de 1792 a 1802. En 1820 en todas las parroquias de Euskal Herria se rellenó un cuaderno especial con los bautizos y matrimonios habidos durante los 10 años de la Revolución en que las iglesias permanecieron cerradas. En ellos se puede ver quiénes fueron los curas que ejercieron a escondidas, en qué casas se reunían y a qué edad bautizaban a los niños.

Palabras Clave: Revolución. Sin curas. Bautizo. Aiherra. Donamartiri. Luzaide. Isturitze.

* Apezetxea. F-64240 Aiherra / Ayerre.

Duela 100 urte hil den Haristoy, interesatu zitzaion Frantziako Iraultza denboran hemen gertatu zenari. Haren ohoretan iduritu zaiku sail bera lantzea egokia zela.

Eskutan izan ditugu, Iraultza denboran egin bataio eta ezkontzekin, apezpikuaren manuz, 1822an beteak izan diren kaierrak (Aiherra, Donamartiri), Iraultza ondoan betea izan den Izturitzeko lehena. Bai eta Luzaiden egin Iparaldeko haurren bataioena.

1790 ondarrean, apez eta apezpikueri galdatua izan zitzaion Frantziako konstituzioari zin egitea. Eta hori Erromak debekatu zuen. Lapurdiko 180 apezetarik 26ek zuten bakarrik zin egin Uztaritzeko Direktorioak Pabera idatzi txosten baten arabera. Emeki emeki zin egin ez zuten apez eta apezpiku guzietan lekuak hustu zituzten. Azkenek 1792ko agorril ondarrean, orduan zituzten 150 bat apez eta apezpiku hil Parisen, Karmetako komentuan, ez zutelakotz zin egin nahi izan. Horietan Frantses d'Arden Ixturiztarra.

Gero, hamar bat urtez ez da apezik izan eliza gehietan. Zin egina zutenak guti ziren eta batzuk apezgoa utzi zuten eta besteak ere debekatuak izan ziren 1793an. Elizak, armadaren zalditegi eta belartegi bilakatu ziren, gerla izan baitzen hemen Espainiaren kontra, 90.000 soldadorekin.

Aferak berriz pikoan jartzen hasi ziren Napoleonek konkordatua izenpetu zuelarik Aita sainduarekin, 1801 inguruan beraz. Artetik erraiteko, konkordatu horrek apezari eskatzen zien konstituzioari zin egitea, hain zuzen Iraultza denboran gain gaitetik debekatuak izan zena! Apezpikuak gobernamentuak izendatzen zituen. Iraultza antzin berriz erregeak! Iraultza denboran girixtinoek zutelarik hautua egin behar, Erromak ez zuen onartu!

Erromari obeditu zuten apezpikuatarik baitziren oraino bizi Konkordatua izenpetua izan zelarik, baztertuak izan ziren, Iraultzariak izendatuak aldiz kargutan egon: Saurine, Landesetako eta gure departamenduko apezpiku ofizial zin egileak Estrasburgora izan zuten aintzinamendua.

Mandoa sal eta astoa eros izan zen beraz. Balio baitzuen hoinbeste sofriaraztea jenden!

Hola irau du Combes minixtroa arte, Eliza eta Estadoaren arteko loturak hautsi arte. Bainan orai ere Gobernamentuak bere hitza badu erraiteko apezpiku berri bat izendatzen denean. Frantziako Lehendakaria framazona eta poligama zelarik Mitterrand bezela, bere ikusmoldeaz kondu atxikitzen zen, bainan ez apez eta girixtinoek nahi zutenaz!

2002an Baionako komertzaildegian René Rémond historilariak erran duenaz, Apezpiku berri bat izendatu aintzin, izena jakin aratzen zaio gobernamentuari. Honi gustatzen ez bazaio erraten du... eta Eliza ez da gobernuaren kontra joaiten, ez baitzaio balio horren gaitik gobernuarekin makurtzea. Hor ziren diosesako kargudun handienak eta nehork ez du deus erran ateraldi horren gezurtatzeko. Egia ditake beraz. Gure apezpikuak Gobernuen gustukoak dira beraz.

Bainan itzul gaiten gure iraultzarat. 10 urte horietan apez andana bat hil zen, 10 urtez hiltzen ohi dena baino gehiago, bizi gogorra izan baitzuten... Seminarioak hetsiak izanez ez zen apez berririk izan eta apez eskas handia izan zen urte zenbeitez.

Hamar urtez apezak debekatuak izan ziren. Batzu hemen berean gelditu ziren gordezka. Beste batzu mugaren haizoblian eman, itzuli bat egiten zutela artetan beren parropiara kontrabandan.

Bataio eta ezkontzak egiten zituzten gordezka etxetan. Eta gordezka egin bataio eta ezkontza horientzat zituzten paperrak egin 1822an. Kaier horietan ez dira ekarriak eginak izan diren guziak. Bakarrik oraino bizi ziren jendee-nak, eta hemen bizi baziren.

AIHERRAKO BATAIOAK

Aiherrako kaierra, Martin Londaitz, Londaitzjauregiko apezak egina da. Honela hasten da:

1793. Registre contenant les baptêmes des enfants nés dans la commune d'Ayherre en l'an 1793, constatés par des enquêtes faites d'après l'ordonnance de Mgr l'évêque de bayonne du 1^o.....1821.

Hona ageri horietarik bat:

L'an mil huit cent vingt deux et le quatre du mois de janvier devant nous prêtre dessnt d'ayherre soussigné ont comparu dominique d'ardan et catherine d'it-hurbide mari eta femme, propriétaires de la maison d'auchofégui de cette commune lesquels ont attesté avec serment avoir fait baptiser en leur propre présence dans la maison d'uhalde Etcheverria d'hasparren bernard d'ardan leur fils né le 27 octobre 1794 et baptisé le 15 avril 1796 par feu dublanc prêtre de cambo. que l'enfant fut tenu au baptême par arnaud sallaberri et catherine haristoy chefs de la même maison d'uhalde Etcheverri du même lieu d'hasparren. d'après ces témoignages et la connaissance que nous avons que ces personnes sont vraiment chrétiennes, dignes de foi et de toute probité, nous jugeons en notre conscience que le baptême dont il s'agit doit être considéré comme certain et valide en foi de quoi nous avons signé avec le père et non la mère ni le fils pour ne savoir le faire.

Lekukoak ikusten zituen apezak, zin egiten zuten, haurra noiz eta non sortua zen erraten, non, noiz eta nork bataiatua, Gauzarik interesanteenak: jakiten dugu zein diren bataioak egiten ziren etxeak (hemen Hazparne Uhalde Etxeberria), zein apez zen gordeka ari (Hemen Dublanc Kanboarra), zer adinetan bataiatuak ziren haurrak (hemen 18 hilabete ditu), eta nor igortzen zuten aita amek beren haurrarekin (hemen aita amak berak izan ziren haurrarekin). Gehienetan gazaita eta gazama. Batzutan sehia eta bekan, aita amak berak, haurrak adin bat baldin bazuen hemen bezela.

Eskutan izan dugu ere Donamartiriko kaierra, Garra Salagoiti apezak egina. Donamartirin ezkontzen kaierra ere bada. Zoritxarrez apezek izenak emanak

badira, ez du erraten non egina den bataioa, ez zein etxetan den ez eta herrian berean ala beste nonbeit. Adina ere biziki bekan baizik ez du ematen.

Orotara 95 bataio baditugu Aiherran 1792ko agorritetik eta 1802ko uztaila arte. Heldu da urtean 9 haur, doblea baino gehiago sortu zelarik. Bainan handik eta 20 edo 30 urteren buruan egina da ikerketa, batzu hil ondoan, beste batzu herritik joan eta.

Donamartirin 115 bataio 1793ko otsaitetik eta 1800rat. Kaierra 1808 arte doa, bainan 1801ko otsailaren 4-tik harat, bataio guziak Garra Salagoitik eginak dira. Herrira itzulia zen eta ez zen gehiago gordeka ari: ez zuten guretzat interesik, egun horretan gelditu gara.

Apezak

Aiherrako haurren bataio horiek hona nork egin zituen:

– **Bastidako elizan**, 15 haur. Apezaren izena ez du ematen Londaitzek, bainan beti “le curé constitutionnel”. Haristoyen arabera Bastidako apez ofizial izan ziren lehenik Bernard Bergeyre Arthezekoa. Hau Garruzera joan zen eta apezgoa utzi gero. Honen ordain jin zen Aiherratik Vincent Pouchain Rebenacekoa. Bide nabar ikasten dugu Aiherran ere izan zela apez zin egilea. Eta Bergeyrek betan bazen, iduriz, Castagnet Bastidarra, bere herrian beraz.

1793,4,5,6,7an eginak dira Bastidan Aiherrako haur horien bataioak. Beraz 5 urte horietan izan da Bastidan apez ofiziala, gehienetan 1793an desagertu zirelarik. Harat joaiten zirenak, ñiñiak ziren, salbu bat: 93.09.13 sortua eta 94.05.12 bataiatua.

Beste bi apez ofizial ere kausitu ditugu. Bat Hazparneko erretora, **D'Ibason**. Bi bataio egin ditu, bat Hazparneko elizan, bestea Lekuinekoan.

– Hirugarrena **Pez** edo Pees Amikuztarra. Aiherrako bataio bat baizik ez du egin, 6 hilabeteko haur batena, Izturitzeko elizan. Landaitzek ez du ematen zin egina duenik, harritzeko baita. Aldiz, Donamartirikoan bi aldiz “jureur” eta beste bi aldiz “intru” ekarria da. 4 Donamartiritar baditu bataiatuak. Non?

Laugarren zin egile bat ere bada, nahiz ez duten salatzen, hau da **Pierre Harispe**, 1793ko agorriean lholdiko erretor izendatua eta apezgoa utzi zuena bi urte berantago. Donamartiriko bi haur bataiatu zituen, hain segur lholdiko elizan.

– Zin egin ez zutenetan lehenik, **Martin Londaitz** bera. Bederatzi bataio egin ditu Aiherran 1792, 3, 7 eta 1800an. 10 Donamartirin 1794, 5, 6 eta 7an. Nolaz ez Aihertarrik 94,95, 96an, Donamartirin gaindi badabilalarik urte horietan? 1798 eta 99an ez zitekeen hemen, nehor ez baitu nihon bataiatu ez ezkondu urte horietan. Bataiatu duelarik ere, pasaian baizik ez zitekeen, bestenaz ez zen hoinbeste Aihertar kanpora joanen bere haurraren bataiatzera.

Beretzat ekartzen du “*prêtre dûment autorisé*” gehienetan eta behin “*par moi prêtre catholique approuvé par l’autorité supérieure*”. Normalki ez baitu ematen beretzat zein etxetan egin duen bataioa, aldi honetan bai. Bernatenean egina dela eta haurra aitak bataiatua zuela jadanik “*pour raison des circonstances du temps*”.

Horrek erran nahi duke aitak ez zuela hil zorian zelakotz bataiatu bere haurra, baina apezik ez zelakotz. Bestalde ere baitira hil zorian aita amek bataiatuak, “*danger de mort*” aipatzen du. Aldi honetan Diharce barberoak berak bataiatu zukeen bere haurra. Londaitzek, berriz bataiatu zuen baldintza pean, familiak bataiatu haur guzietan egiten zuen bezela.. Ontsalaz, bataiatzaleak egin ez dituen parteak ditu apezak egin behar horrelakoetan, uraren ixurteaz kanpo besteak, baina ez du berriz ura ixuri behar eta idatzen duenlarik “*j’ai baptisé*” iduri luke ura ixuri duela. Ikusiko dugu Luzaiden ez zela hola pasatzen.

Aitortu behar dut gauza batek harritu nauela: Bernateneko kasu honetan baizik ez dutala ikusi, hil zoriaz kanpo, haur bat bere familiak bataiatua, zenbeit aldiz urteak egon direlarik apez baten beha eta dakigularik 10 haurretarik 4, bost urteak gabe hiltzen zirela garai haietan.

Bernateneko bataio ageria aintzin ohar hau: “*l’an mil huit cent vingt deux et le quatorze du mois de janvier a été transféré l’acte de baptême de Jeanette diharce à ce registre ainsi qu’il suit, et celui de Magdeleine sa soeur.*” Bataioak egin zituelarik ageri bat eman zion beraz aitari. Magdeleine bataiatu zuen sortu eta biharamunean.

Berak egin zuen 75. bataioetan irakurtzen dugu: *Cet acte a été transféré dans ce cayer comme plusieurs autres qu’on pourra trouver ailleurs.* Horrek konfirmatzen du ageri bat ematen zuela haurra bataiatzean

Etxe berean beste haur bat bataiatu baitzuen D’artaguiette apezak hona zer irakur ditakeen “*l’avoir fait baptiser en sa propre présence et celle de toute sa famille*”. Familia osoa etxean bildua, zenbeit barrandan, bazitekeen kartsutasun bataio horretan.

– **Martin d’Artaguiette** sortzez Makearra, Lekuineko erretor Iraultza aintzin eta ondoan. Haristoyek uste zuen mugaz bestaldean egona zela. Bere herritarren ikustera etorri da beraz gutienez 3 aldiz.

Aiherrako hiru bataio egin ditu: biga Bernatenian beraz, beste bat Lekuine Bidarteberrian, Arraiduagerreko haur batena. Bataioa horiek 95, 97, 99an. Lehena elizan berean egin zuen, harritzeko baita jakinez 1795an zela, eta ez zela arralleriarik orduan.

– **Gratian d’Arraidu.** 1730an sortua Gerezetan. Sei Makearrek salatu zuten ez zuela zin egina eta preso eraman zuten Pabera. 1794an libratu zuten, hain segur bere adina gatik: 64 urte zituen eta garai haietan adin hortan zaharra zen. Hor berean gelditu zen ixilean eta apez lana egin gordezka.

Gaur ez da Bortheyru Etxeberririk, baina Bortheirua. Etxe horretako ate gainean harri xixelkatua da: fait par Darraidou l'an 1788". Etxea orduan berri-tua eta holakoetan askotan ikusten da paperretan "la maison neuve de...". Hortarik, Arraidu "Etxeberría". 18 Aihetar ibili dira etxe horretan beren ha-rrarekin. Baina kanpora ere ateratzen zen. Hazparne Jauregian bataiatu du behin Aihetar bat. Azpimarratu behar da urterik gogorretan ari izan dela gehienik lanean: 1793, 4 eta 5an.

14 Donamartiritar bataiatu ditu ere 1794, 5 eta 6an, baina ez dakigu nun.

Jean Dublanc Kanboarra zen. Zin egin zuen behin, baina berehala gibe-lerat egin publikoki: apez ofizial bezela, bere lehen paga ez zuen behin ere hunki. Bere etxean meza emateko denak prest ziren batez, polizia sartu zen. Apeza eskapatu zen baina aita eraman zuten eta lepoa moztu zioten Paben. Bere ama, Landesetara deportatua izan zen.

Hazparne Uhaltetxeberrian bataiatu ditu 14 Aihetar, biga Haxategian eta bat Hoditegizaharrian (Oraiko seroren etxean). Donamartin bi bataio egin ditu ere baina ez dakigu nun. Bai eta bi ezkontza.

Mixel Behola sortzez Senperra, Luhusoko erreter zen Iraultza hasi zela-rik, Martin anaia zuelarik bikario. Mixel hemen berean gelditu zen behin, zin egina zuten apezak eskas izanez. Gero joan zen mugaz bestaldera. Baina artetan alde honetara pasatzen zen. Aihetar bat bataiatu du Makean 1797an eta 11 Donamartiritar 1793, 94 eta gero 97, 8, 9 eta 1800an. Ezkontza bat ere egin du

Arnaud Duhart Beskoiztarrak Aiherrako haur bat bataiatu du Lekorne Harretxian.

Ainitz Etcheverry eta Etcheberry bazen. Hiru anaia baziren Larresorokoak. Hauetarik bat **Martin Etcheverry** ditake Hazparne Haxategian Aihetar bat bataiatu duena, Londaitzek Larresorokoa bezela ekartzen duen bat, Hazpar-nen bikario baitzen joan aintzin.

18 Donamartiritar bataiatu eta beste 3 ezkondu dituen **Etcheberry** aldiz, Armendaritzeko bikario ohia zitekeen. Haristoyen arabera, Behasiko otharretan eraikia zuen ttattolan bizi zen eta hor bataiatzen eta ezkontzen jendeak. Eri bat bazelarik, orgekin heldu zitzaizkion biderdi eta abarrez estalagirik erematen eriaeren etxera. Denbora pasa, zurezko uztaiak egiten zituen ardi eta behien joa-rentzat. 1796ko abendoan agertzen da lehen aldikotz gure paperretan.

Bertrand Léon Satharitz Izturiztarra, Meharineko erreter zen Iraultza ain-tzin eta Aiherrako haur bat bataiatu du 1793an. Hiru Donamartiritar berriz 1792-3an.

1793an, Aihetar bat Izturitzeko elizan bataiatu duen **Sokobi** kaputxinoa ere Izturiztarra zitekeen: Etxebeherera joan ziren honen ontasunen berri jaki-teko Isturitzeko herri gizonak 1792an. Isturitzeko elizan egina izatea bataio

hau ez da ezinezkoa, zeren eta herriak ardietsi zuen Donapaleutik, apez zin egilerik ez zuteno, zina egina ez zuen bat atxikitzea.

Gero aipatuko dugun **Etchevers** Donibane Lohizundarrak Aihertar bat bataiatu du 1798an, Sorzabalian, Londaitzen arabera. Nolaz hori, 1797an hasia zenaz geroz Isturitzeko elizan bataiatzen gero ikusiko dugun bezela?

Elissalde Hazpandarrak 12 Aihertar bataiatu ditu 1801ko uztailetik harat. Aiherran, baina elizan honek ere. Ez zitekeen beraz gordezka ari.

DONAMARTIRIKO BATAIOAK

Jadanik erran bezela, kaier honek ez du erraten non bataiatuak ziren haurrak, ez etxe, ez herri. Kasik sekulan ez du haien adinik aipatzen. Hor baizik aipatuak ez diren apezak zein diren erranen dugu orai. Salagoity Garra Heletarrak egina da.

Lehenik badugu **Garra** bat 1793ko 3 bataioentzat. Salagoity Garra zen erretor Iraultza etorri zelarik. Hau ote zen? Bizkitartean, 1795 eta 97ko bost bataioentzat **Sallagoity Garra** ekartzen du beti eta sekulan ez **Garra**.

Milafrangako **Aguerrek** 10 bataio egin ditu 1796tik 99rat. Baina herri horretako erretorak Daguerre zuen izena eta preso eman zuten 1791ko urtarilean, apez lagunak akulatu zituelakotz zina ez egitera. Libratua izan ote zen eta gero hor berean gorde. Zer lotura zeukan, hoin urrundik, Donamartirirekin?

Imbert Donostiriko erretorak haur bat bataiatu zuen 1792ko otsailan. Kasik apez guziak hemen ziren oraino, baina Donamartiriko joana zitekeen zeren eta hilabete berean herri horretako ezkontza bat ere badugu Luzaiden.

Pierre Haristoyek 6 bataio egin ditu. Sortzez Donamartiritarra, 34 urtetan apeztu zen ezkondu eta alargundu ondoan. Aiherran kasu bera baten: Piarres Larzabal ezkondu zen Isturitz Sorzabalera, alargundu, teologia Tolosan ikasi eta apeztu. Hirugarren bat Donamartirin: Londaitz notarioaren paperretan, 1788an aipu da Isabelle Harriague, Dominique Harriague Donamartiriko Erretoraren alaba, aitak ondoko egina.

DONAMARTIRIKO EZKONTZAK

Ezkontzentzat ere lan bera egin zuen Garra Salagoitik. 1792tik 1800 arte 27 ezkontza kondatu ditugu. Izen berriak agertzen dira.

Pierre Delgue Ortzaiztarra, Jatsuko erretor zen Iraultza etorri zelarik. Lehoina bezen azkarra zelako fama zuen Haristoyen arabera. Irisarriko bataio kaier batek dio, Armendaritz, Iholdi, Heleta, Irisarri, Landibar, Larzabal, Ainhiza, Gamarte, Buzunaritz, Ortzaiz, Suhuskune, Izpura, Jatsu eta Baigorri gain-di ibili zela bere apez lana egiteko 1796tik harat. Donamartiritar eta

Donostiritar baten ezkontza egin zuen 1799an, auzo herri horietarik batetan pasatzean, dudarik gabe.

Jan Battitt Ississari Lekondarrak 3 ezkontza egin ditu 1797 eta 98an. Hau ere famatua da. Ixilean gelditua hemen, Mespoulet bere herriko erretor zin egileak saldu omen zuen. Jandarmek Zabaltzan gelditu 1799ko apirilean. Hain ziren kontent non Atizaneko ostatuan pausu bat egin baitzuten beren balentriaren ohoratzeko merezi zuen bezela.

Arte hortan Lekondarrak bildu Martirren Ordokian, Heleta eta Lekorneren mugan. Jandarmak horrara heltzearekin tiroka atakatu zituzten. Bi jandarma serioski kolpatu, zaldi bat hil, beste bi kolpatu eta apeza libratu.

Gero Lekorne auzitan izan zen Paben eta 6.000 libera pagatzera kondatua, 1000 afitxa, auzia eta abokat fresak bestalde.

Horrek erakusten dauku 1799an oraino bazterrak minbera zirela lekuka bederen, beste batzutan normalizatuak zirelarik.

Saubidet bat aurkitzen da 1794ko ezkontza batetan. Sortzez Aruekoa, bataioak egin ditu Landibarre Haranburuan, 1794 eta 1796an.

Azkenik aipatu behar dugu hegoaldea. Zenbeit harat joaiten ziren. Oinez gehienak hain segur. Aihertar batek **Luzaiden** bataiatu zuen bere haurra Londitzen arabera. Bainan ez dugu izen hori aurkitu gero aipatzen dugun Luzaideneko kaiserrean. Donamartiriko bi ezkontza baditugu **Zugarramurdin**, bedera **Arizkun** eta **Urdazubin**. Luzaiden ari zen Etcheverry-k, bat bataiatu zuen Garzain-en, Elizondotik hurbil. Gauza guti oren buru kondutan hartzen badugu 250 bat akta badugula. Hemendik urrun zen!

Hitz bat ere haurren adinaz. Gehienetan sortu eta laster igortzen zituzten. Bainan ez zekiketen beti non aurki apeza eta Aiherran badira 21 haur, 6 hilabete eta 4 urteren artean bataiatuak, ainitz baita, hiruetarik bat pasa. Hortarik ageri da haur baten bataiatzea ez zela hain erretx.

11 badira kasu horretan Donamartirin, bainan normalean ez baitu adinik aipatzen ez dakigu horretan mugatzen zenetz.

Bi xifre bururatzeko. Bataioak egin diren **9 etxe** kondatu ditugu, oroituz bataio gehienentzat ez dugula etxearen izenik: Sorzabalia Isturitzen, Bernatenia Aiherran, Bidarteberría Lekuinen; Borthairua Gerezetan; Harretxia Lekornen; Jauregia, Haxategia, Hoditegizaharria eta Uhaldebeheria Hazparnen. Eta egun beltzeenetan, 1800 aintzin bataiatzen edo ezkontzen ari izan diren **20 apez**.

ISTURITZEKO KAIERRA

Kaier hau apezpikutegian da. Etchevers Donibane Lohizundar apeza, Isturitzen jarri zen 1797ko agorrilean, 1802ko buruileko 1an Aiherran sartzeko. 227 bataio egin zituen arte horretan. 92 Isturitzekoak, 114 auzo herrietako-

Arbelbide, Xipri: Bataio, ezkontzak, Aiherra, Isturitz Donamartiri eta Luzaiden iraultza garaietan

ak eta beste 25 ez dakigu nongoak. Hona xifreak urteka, Isturitz/Auzo herri: 4/3 1797an, 23/30 1798an, 25/38 1799an, 25/27 1800an, 16/7 1801an. Zoritxarrez ez dugu haurren adinik.

9 egin zituen lehen 5 hilabeteetan, horietarik 4 auzo herrietakoak. Ondo-ko urtetik, zinezko proosinoa izan zen alde guzietarik. Orotara 31 Aiherratik, 24 Donamartiritik, 18 Oragarretik, 17 Meharinetik, 9 Donostiritik, 6 Armendaritzetik, 5 Amorotzetik, 3 Arrutatik eta bat Donapaleutik. 53 bataio orotara 1798an, 63 1799, 53 1800an, 23 2001an eta 16 2002 hauetarik bat oraino Aihertarra zelarik.

Ohar zenbeit bataio horietaz. 1799an Ississary Lekornen gelditu zuten baino bi urte lehenago goxoan ari zen Etchevers Isturitzen. Gauzak ez dira denetan abiadura berean aldatu beraz. Bestalde apezik ez zela denetan garbiki erakusten dute haur mugimendu horiek.

1801an bazterrak normalisatuxeak direlarik, oraino heldu zaizkio Aiherra, Oragarre eta Donostiritik Isturitzera.

Gorenean zelarik, egun batez, bost betan Oragarretik, bost etxetarik. Gogoeta egon naiz, Oragarre eta Isturitz artean baita Otsoerreka, ez ote zen indarrean izaiteko gune minbera hori pasatzean. Otsoak baitziren oraino!

Bainan Meharinetik 6 heldu zaizkio beste egun batez. Gisa bereko arrazoin baten gatik? Sei horietarik 3 familia berekoak: bataiatu gabe geldituak apez eskasez.

Bainan gauza harrigarria, Izturitzen berean 5 haur bataiatu ditu egun berean. Ez zenbeit astez herritik falta izan zelakotz, zeren eta hilabete berean beste bi egin ditu lehenago eta beste bi ondotik. Heldu baita 9 hilabete berean.

LUZAIDKO KAIERRA

Ikusirik Aihertar bat Luzaiden bataiatua izan zela 1792an, izan gara Luzaideko parropian eta han irakurtu dugu:

El 25 de abril de 1794 invadieron los republicanos franceses la villa de Valcarlos cuyos habitantes tuvieron emigrarse abandonando todo y estuvieron emigrados hasta principios del año 1796 quienes a la vuelta encontraron todo incendiado sin esceptuar habitacion alguna

Beste kaier bat hatxeman dugu:

Registro de los niños franceses bautizados en la Iglesia de Valcarlos por mi Domingo de Echeverry, vicario general administrador del obispado de Bayona, parroco interino de esta parroquia de Valcarlos. Escrito en frances para usarlo a francia. Traducido para Valcarlos.

Etcheverryk egin ditu bataioak 1796ko otsailaren 7tik 1799ko urtarrilaren ondarra arte. Hiru urtez bataiatu ditu 221 haur. Gero Hazparnera itzuli

Arbelbide, Xipri: Bataio, ezkontzak, Aiherra, Isturitz Donamartiri eta Luzaiden iraultza garaietan

ditake bainan haurrek segitzen zuten Luzaidera jiten, ez baitzen berehala apezik izan denetan. Hona xifreak urteka. 61 bataio 1896an, 32 97an, 50 98an, 78 99an, 49 1800an, 23 1801an, 17 1802an eta 9 1803an, orotara 319 bataio 7 urtez.

Zerk egin duen 97an 32 baizik ez izaitea, 78 izan zirelarik 99an, iduriz bazterrak kalmatzen ari zirelarik, ez dakit.

111 Arnegikoak, 34 Uhartekoak, 33 Eihalarrekoak, 30 Lasakoak, 26 Donibaneakoak, 16 Izpurakoak, 13na Zaro eta Donazaharrekoak, 11 Azkaratekoak. Besteak Ahatsa, Ainiza, Aintzile, Aldude, Baigorri, Banka, Bazkazan, Behorlegi, Buzunaritz, Garruze, Ibar, Iholdi, Iriberrri, Irisarri, Irulegi, Larzabal, Suhuskun, eta Uharte-Hirikoak. Orotara 27 herritakoak, bainan gehienak Garaztarrak eta bereziki ondoko herrietakoak, erdiak pasa Arnegikoak zirelarik. Lasa, Azkarate, Uharte, Donibane, Izpura, Eihalarre, Zaro eta Donazaharrekin 307tan gira.

Etcheverryren haur horietarik 93 etxen baiataituak izanak ziren apezaren gana jin aintzin: 80 entzat emaiten du “con condicion”, baldintza pean bataiatu dituela. Bera ez zen segur etxen ongi bataiatuak izan zirenik. 13rentzat berriz “he supplido”, erran nahi baita uraren ixurtzeaz gaineratiko elizkizunak baizik ez dituela egin. Horietarik 7rentzat emaiten du “bautizado en casa por persona de confianza,” erran nahi baita segur zela bataioa ongi egina izanan zela. Ez zuen beraz bataioa sistimatikoki berriz egiten, Londaitzek Aiherran bezela.

Gehienetan, sortu eta 8 egun edo gehiagoren buruan heldu zirenak, etxen bataiatuak izanak ziren.

Pentsatzen dut beste herrietako kaijerretan diren bataioentzat ere gehienetan etxean berean bataiatuak izanak zirela, apezaren ikustera joan aintzin, paperrek hala erraten ez badute ere.

Adinari dokionaz, Etcheberryren kaijerreko 221etan, 49k aste bat edo gutiago zuten: 29 Arnegikoetan alabainan hor berean zuten, 7 Lasakoak, beste hameka Uharte, Irulegi, Zaro, Donibane, Eihalarre ta Donazaharrekoetan. 21tek bazuten astea eta hilabetearen artean, 45ek hilabetea eta urtearen artean, eta 12ik urte batez goiti.

Beste bi ohar. Sortze horietan aldi bat baizik ez da izan biritxirik eta beste behin baxterta, bainan aita ezaguna zen. Zinezko baxterta zena ala aita amak ez ezkonduak apezik ez izanez?

Etxeberrrik 3 hilabetez ez du bataiorik egin, 96ko hazarotik eta 97ko otsailaren 10 arte. Alde honetako herri zenbeitetara jina zitekeen gordeka lanean aritzera.

Nor zen Domingo Etxeberri, bikario nagusia, Baionako diosesako administratzailea, behingo Luzaideko apezka. Baionako bikario nagusia Martin Etxebe-

rri Zaro Iturbideko semea eta Hazparneko erretora zen. Nolaz izenpetzen zuen Domingo? Familiako paperretan ere 'Martin' ekarria da.

Etcheverryk ez du kaierrik egin ezkontzekin. Boulogneko apezpikuak Alemaniak bere girixtinoei idatzi gutun batetan zioen herriko etxean egin ezkontza bali zela, apezik ez bazen. Aita Sainduak 1793ko maiazaren 28an Luçongo apezpikuari idatzi arazia zion, herrikoetxera joan aintzin bi lekuko girixtinoren aintzinean behar zutela ezkondu, herriko etxeko hura urrats administratibo bat baizik ez zela. (Abbé Haristoy: Lettre pastorale de l'évêque de Boulogne au Pays Basque. Laserre, Bayonne, 1893. 6. orrialdean)

Gutun horretan berean irakur daiteke apez zin egileen bataioa bali dela... baina haiek benedikatu bataio ura bota behar dela! (4. orrialdean)

Holako kaierrak badira apezpikutegian, apezetxeetan eta herriko etxeetan. Horien ikertzea ez da ezinezkoa, ordenagailu bat den pundutik eta gaizki idatzi paperren irakurtzeak lotsatzen ez duenarentzat.

Dokumentu bezela ematen ditugu eskutan izan ditugun lau kaierrak. Ez ditugu kopiatu ziren bezela. Donamartiri eta Aiherraren kasuan lehentasuna eman diogu bataioa egin duen apezari, apezaren izenak baititugu. Luzaide eta Izturitzeren kasuan apeza beti bera izanez, haurren sorterriari eman diogu lehentasuna.

Lehen zutabearen bataioaren zenbakia kaierrean, bigarrean, non egin den bataioa, hirugarrean bataio eguna eta sorteguna badelarik, laugarrean haurren izena, bosgarrean aitarena, seigarrean amarena, zazpigarrean haurra sortu den etxea, zortzigarrean nork ekarri duen haurra bataiora.

donamartiriko ezkontzak

eguna	apeza	gizona	nongoa	oinaztea	nongoa
1796.05.02.	-Arizkun	Hariztoi Pierre	Donamartiri Etxexuri	Agerre Graciane	Donostiri Agerria
1796.01.20	-Erratzu	Harizpuru Salvat	Donamartiri Berho	Etxart Mari	Donamartiri Garafia
1792.02.15	-Luzaide	Etxegoien Bertrand	?/Etxegoienaz	Bidart Mari	Ortzaiz Elizondo
1799.06.24	-Luzaide	Soparrart Arnaud	Donamartiri Etxegarai	Jauregi Mari	Donamartiri
1795.02.01	-Urdaxubi	Iriberrri Jean	Donostiri Jakesberria	Bazterretxe Mari	Donamartiri Lakuaga
1798.05.03	-Zugarramurdi	Etxebeheiti Pierre	Bardoz Ibarburua	Hiriart Dominique	Donamartiri Lakuaga
1795.10.20	-Zugarramurdi	Lagrande Bernard	Izturitz Hiriartea	Hiriart Mari	Donamartiri Lakuaga
1797.?.02	Behola	Haranet Arlande		Jauregiberri Graciane	Meharin Benta
1794.02.15	Darnauidu	Ihiztarri Laurens	Donamartiri Zabaltza	Zaldixuri Mari	Meharin Uhartia
1799.10.14	Deique	Biados Anton	Donamartiri Pututegi	Uhalde Catherine	Donostiri Sasogaitz
1793.05.15	Dublanc	Jauregiberri Charles	Donamartiri Inhabartiri	Gerat Catherine	Izturitz Tulumuntegi
1794.09.01	Dublanc	Mendi Salvat	Aiherra Elizaldia	Mendibil Jeanne	Donamartiri Argain
1796.11.12	Etxeberri	Mendibil Jean	Donamartiri Barbaza	Hegi Mari	Donamartiri Hegi
1798.11.13	Etxebe	Irola Pierre	Donamartiri Olatager	Etxegarai Graciane	Heleña Hagiagarai
1800.04.21	Etxebe	Lartegi Pierre	Donostiri Harretxia	Etxeberri Agnès	Donamartiri Sasategi
1799.07.09	Etxebertz	Laborde Jean		Caussade Catherine	Lanibar. Muthoa
1799.07.?	Etxebertz	Urrutigarai Laurens		Laronde Mari	
1800.02.?	Etxebertz	Etxehandi Bertrand	Donamartiri Bidart edo Petandegi	Agerre Mari	
1797.07.08	Hegi	Etxepare Jean	Donamartiri Larria	Caussade Jeanne	Donamartiri Bidegain
1801.01.20	Hegi	Opoka Arnaud		Abadie Etienne	

donamartiriko ezkontzak

eguna	epea	gizona	nongoa	emaztea	nongoa
1797.02.15	Isizarri	Etxeberri Laurens	Donamartiri Uhaldeborde	Argain Mari	nongoa Donostiri Larra
1797.05.16	Isizarri	Errekalde Bernard	?/Janetena	Arozarena Mari	Donamartiri Gazteluberri
1798.08.?	Isizarri	Hegi Valentin	Heleta Kurutzaldea edo Bidegana	Gazteluberri Dominique	Donamartiri Gazteluberri
1799.11.?	Lartrigain	Hariztoi Martin	Donamartiri Harrixuri	Siados Mari	Aiherra Hakaldai
1797.06.06.	Lekuine erretoya	Karrikaburu Bertrand	Donamartiri	Ceabu Mari	
1797.07.31	Lekuine erretoya	Bidart Laurens	Donamartiri	Mendibil Mari	
1793.02.15	Londaitz	Xotil Bertrand	Donamartiri	Gartzia Marianne	Ahatsa Olhaberri
1797.08.02	Londaitz	Bidart Charles	Donamartiri	Iratzabal Mari	Bazterretxea
1793.02.15	Salagoiti Garra	Irigarai Jean	Donostiri Amastoi	Uhalde Mari	Armandaritz Etxenika
1797.08.31	Salagoiti Garra	Larramendi Jean	Donamartiri Kurutzeta	Donapetri Dominique	Donamartiri Etxegoin
1797.09.?	Salagoiti Garra	Haritzhandietgarai Ch	Donamartiri	Jauregiberri Mari	Donamartiri Etxegoin
1797.09.?	Salagoiti Garra	Veguerie Jean	Donamartiri	Etxegoien Mari	Donamartiri
1794.06.12	Saubidet	Kallaba Pierre	Donamartiri	Etxehandi Jeanne	Donamartiri

1 DONAMARTIRIKO BATAIOAK

apeza	tokia	eguna	izena	etxea	aita	ama	adin
ager	milafranga	1797.04.17	salaberri,jeanne	atxala	jean	goulet mari	
ager	milafranga	1797.10.23	urrutiaque charles	larrart	jean	haritzhandietbehete	
ager	milafranga	1796.02	oihartzabal françois	uhaldia - meharin-	charles	mendigara,jeanne	
ager	milafranga	1796.03.16	oihanart marie	argoitz	arnould	ager mari	
ager	milafranga	1796.08.24	foget,jean	inbarne	pierre	ager mari	
ager	milafranga	1796.08.30	bidart ursule	borja	pierre	hariztoi,jeanne	
ager	milafranga	1796.08.30	bidart marthi		pierre	hariztoi,jeanne	
ager	milafranga	1797.02.17	iniberri,graciane	bazterretxe	jean	bazterretxe mari	
ager	milafranga	1797.03.30	hiriarri pierre	hariniskiri	dominique	hariztoi, catherine	
ager	milafranga	1799.08.03	laborde dominique		jean	caussade catherine	
ager	milafranga	1799.08.17	larramendi,jean	kurutzeta	jean	donapetri dominique	
ager	milafranga	1799.10	haranet,jeanne	etxexuri- meharin	arnalde	behaterria graciane	
behola		1793.08.05	etxegoien dominique	etxegoien	bertrand	bidart mari	
behola		1794.11.19	etxegoien pierre	etxegoien	bertrand	bidart mari	
behola		1797.02.11	etxegoien,jean	etxegoien	bertrand	bidart mari	
behola		1797.04.14	oihanart,jeanne	hazarai	pierre	salberri,jeanne	
behola		1797.08.24	mendiande louis	amztaiburu - Heleta	jean	st esteben isabelle	
behola		1798.03.15	etxart pierre	oihanart	françois	etxaberri mari	
behola		1798.06	oihartzabal sebastien	uhaldia - meharin	charles	mendigara,jeanne	
behola		1799.02.02	etxegoien,julianne	etxegoien	bertrand	bidart mari	
behola		1799.08.20	elizalde mari	larre	salvat	etxepare catherine	
behola		1799.08.23	elizalde mari	larre	salvat	etxepare catherine	
behola		1800.08.04	hegi pierre	berro	salvat		
bikarioa	zugarramurdi	1795.08.01	xotil,jean	etxegoienboroda	bertrand	gartzia marianne	
darraidu		1793.02.28	garat pierre	garat	bernard	etxart catherine	
darraidu		1793.06.27	oihanari,jeanne	argoitz	arnould	ager mari	
darraidu		1793.11.21	etxaberri,graciane	etxexuri	bertrand	kurutzet sabine	
darraidu		1794	etxepare salvat	garakots	pedro	argoitz estienne	
darraidu		1794	otsazelhar clementine		jean	etxartmari	
darraidu		1794	urruapuru marie	etxart	pierre	mirande graciane	
darraidu		1794.02.15	etxart pierre	oihanart	françois	etxaberri mari	

2 DONAMARTIRIKO BATAIOAK

apeza	tokia	eguna	izena	etxea	aita	ama	adina
darraidu		1794.05	jauregiberrri jeanne	ihobartiri	jean	jeles jeanne	adina
darraidu		1794.06.18	xotil catheline	mendiburu	pierre	ager mari	9 hil
darraidu		1794.08.26	foget jean bapiste	iribarnia	arnaud	ager mari	3 urte
darraidu		1795.05	oihanari jeanne	argotz	arnaud	ager	urte 1
darraidu		1795.05	oihanari mari	argotz	bernard	etxeagarai jeanne	
darraidu		1795.05.13	xotil jeanne	zaldundegi	jean	uhalde mari	7 hil
darraidu		1795.05.19	hirigarai marie	corits	jean	uhalde mari	
darraidu		1795.05.19	hirigarai pierre	corits	jean	uhalde mari	
darraidu		1795.05.23	larronde jean	etxeberri	jean	arbelbide catheline	aste 1
darraidu		1795.06.26	pamiens jeanne	etxeberria	arnaud	mendiburu catheline	16 hil
darraidu		1795.12.29	etxeagarai jeanne	etxeagarai	laurens	irigoitzbehere graciane	
darraidu		1796.03.31	kuruxet pierre	salaberri	jean	bidart graciane	
dubianc		1795.06.29	lagranade marie	lakaque	bernard	hiriarri mari	
dubianc		1796.02.14	mendi jean	argain	salvat	mendibil jeanne	
erretora	bithiriña	1800.10.04	larronde jean	etxeberri		oihabide sabine	
erretora	bithiriña	1793.10.22	xotil jean	zaldundegi	bernard	etxeagarai jeanne	
etxeberri		1797.02.15	lahangou marie	sarribe	jean	arbelbide catheline	4 urte
etxeberri		1797.02.15	lahangou marie	sarribe	jean	hegi mari	2 urte
etxeberri		1797.02.18	maigor jeanne	otszelhai	jean	uhartegarai cathier	6 aste
etxeberri		1797.02.20	garat mari	sasategi	jean	sothuet mari	4 urte
etxeberri		1797.05.10	khabanats mari	alsurrun laka	pierre	st pee mari	3 urte
etxeberri		1797.05.10	khabanats pierre	alsurrun laka	pierre	st pee mari	2 hil
etxeberri		1797.05.10	lagranade mari	lakaque	arnaud	hiriarri mari	
etxeberri		1797.05.16	jauregiberrri mari	salagarai	jean	jeles catheline	4 urte
etxeberri		1797.05.16	jauregiberrri mari	salagarai	jean	jeles catheline	urte 1
etxeberri		1797.05.16	landart mari	etxarria	jean	izoste isabelle	urte 1
etxeberri		1797.07.19	hegi marie	ibarreta	pierre	harretxe jeanne	
etxeberri		1797.10.12	kallaba berttrand	iparrager	pierre	harretxe jeanne	
etxeberri		1797.5.10	harretxe jean	ibarreta	pierre	hegi jeanne	2 urte
etxeberri		1798.01.08	laharqui jean	sarribe	jean	hegi mari	3 hil
etxeberri		1798.04.15	mendibil pierre	barbaze	jean	hegi mari	

3 DONAMARTIRIKO BATAIOAK

apeza	toki b	eguna	izena	etxea	alib	ama	adin
etxeberrri		1799.07.09	harretxe marie	ibarreta	pierre	hegi, jeanne	
etxeberrri		1799.09.29	irola jean	oilatagar	pierre	gaztelu gracieuse	
etxeberrri		1800.04.06	khaborats jean	alsurrun laco	pierre	st pee mari	
etxeberrri		1800.04.06	salaberri jean	atxola	jean	goulet mari	
etxebertz		1795.07.22	inhabartiri catherine		bernard	hariztoi dominique	
etxebertz		1796.09.01	jauresgiberrri jean	inhabartiri	charles	garat catherine	26/9
etxebertz		1796.10	narro marie	alsurrun	dominique	xalut catherine	
etxebertz		1797.09.28	etxepare bernard	haizagar	jean	caussade jeanne	
etxebertz		1797.11.11	biolat bernard	barja	pierre	hariztoi jeanne	
etxebertz		1798.04.09	xotil catherine	zabalzaagarai	bernard	etxegarai jeanne	
etxebertz		1798.04.16	oihanari marie	arqoit	arnaud	ager mari	
etxebertz		1798.08.30	hariztoi graciane	etxexuri	pierre	ager graciane	
etxebertz		1798.09.18	oihartzabal pierre	arostegi	laurens	sorhut mari	
etxebertz		1799.04.07	ihixtari arnaud	uhart - meharin	laurens	zaldixuri mari	
etxebertz		1799.04.20	mendi jean	argain	salvat	mendibil jeanne	
etxebertz		1799.06.18	jauresgiberrri pierre	inhabartiri	charles	garat catherine	
etxebertz		1799.07.08	etxexuri marie	belharitz	jean	landart dominique	
etxebertz		1799.07.27	landart graciane	etxart	valentin	izozta isabeau	
etxebertz		1799.08.18	karrikaburu laurens	erreketa	bernard	kaubu mari	
etxebertz		1800.04.01	xotil jean	etxepare	bernard	etxegarai jeanne	
etxebertz		1800.05.26	etxepare jean	haizagar	jean	caussade jeanne	
garra		1793	harretxe mari	ibarreta	pierre	hegi jeanne	
garra		1793.04.30	kastelet isabeau	zubiburu	pierre	mironde graciane	
garra		1793.07.18	mendiburu jeanne	kastelet	jean	landart mari	
harizpe	iholdi	1793.08.03	larronde jeanne	harretxea	jean	catil catherine	
harizpe	iholdi	1793.11.23	etxexuri mari	belharitz	valentin	landart dominique	
hariztoi		1795.06.27	lahargou marie	harregi	jean	etxart mari	
hariztoi		1797.06.08	elizalde martin	larre	salvat	etxepare catherine	
hariztoi		1799.12.08	larronde marie	harretxe	jean	katil catherine	

4 DONAMARTIRIKO BATAIOAK

espasa	tokia	eguna	izena	etxea	aita	ama	adin
hariztoi		1800.06.18	aquer bertrand	baratzart	dominique	aignez catherine	
hariztoi		1800.07.15	xotil charles	arhadoui	bertrand	gartzia mari	
inbert	donostiri	1792.02.25	haranburu graciane	xalut	jean	bidart mari	
karrikant harizpe		1793.10.30	landart graciane	etxart	jean	isasta isabelle d'	
londaitz		1794.07	ospital jeanne	inabartiri	charles	garat catherine	
londaitz		1795.10.10	kallava gabriel		pierre	etxehandi jeanne	
londaitz		1795.10.20	etxepare harro	agorreta	dominique	chalut catherine	
londaitz		1796	marie kostelet	zubiburu	pierre	mirande graciane	
londaitz		1796.02.11	etxart jean	oihanartia	françois	etxeberrri mari	
londaitz		1796.03.08	etxexuri catherine	beihoritz	valentin	landart dominique	
londaitz		1796.11.10	hariztoi valantin	etxexuri	pierre	ager graciane	
londaitz		1797.01.15	xotil catherine	etxepoienborda	bertrand	gartzia mariane	
londaitz		1797.02.04	urruapuru marie	etxart	pierre	mirande graciane	
londaitz		1797.12.01	garat mixel	garat	bernard	etxart catherine	
pets (zin egile)		1793.08.29	hinart valentin	hariniskiri	domingo	hariztoi catherine	
pets (zin egile)		1794.02.06	oihanart estebe	hazarai	pierre	salaberrri jeanne	
pets (zin egile)		1793.02.27	etxepare mari	garakotx	pierre	argoritz estebani	
pets (zin egile)		1793.08	ager dominique	atxola	jean	oihanart mari	
salagoiti garra		1795.12.25	garat pierre	ibarreta	ez ezaguna	garat dominique	1/8.sortua
salagoitigarra		1796.09.	jauregiberrri jean	inhabartiri	charles	garat catherine	
salagoitigarra		1797.02	laronde catherine	harretxe	jean	katil catherine	
salagoitigarra		1797.07.01	salaberrri jeanne	atxola	jean	goulet mari	
salagoitigarra		1797.07.17	jauregi catherine		ez ezaguna	jauregi mari	
salagoitigarra	meharin	1797.08.03	mendi marie	argain	solvat	mendiabi jeanne	
sataritz			uruspuru mari	etxart	pierre	mirande graciane	
sataritz	meharin	1792.06.	mendiburu tristant	kostelet	jean	landart mari	
sataritz	meharin	1793.02.28	mendiabi JB	barbaze	jean	etxeberrri dominique	

IZTURITZEKO BATAIOAK

izena	herria	alxea	urtea	aita	ama	enbak	ohar
eiartze jeanne			1798.07.22	bertrand	kristi martine	42	
mendibure jean		ardan	1798.08.14	pierre	ardan mari	44	
sarthou pierre			1798.11.11		poxolu mari	62	+
mendilahatsu mixel		etxexuri	1799.01.03	françois	Kazabe Mari	65	+
abadie jeanne		ollartegi	1799.02.27	jean	constantin mari	77	
hariztai mathieu		hariztoia	1800.07.09	jean	ibarbure jeanne	152	
garra dominique		etxepare	1800.07.27	jean	hiriart mari	157	
abadea jeanne		ollotegi	1800.09.25	jean	constantin mari	166	
joanotegi bernard		kostaburu	1800.10.27	arnaud	etxeverri jeanne	170	
			1800.11.28				
minaberri laurent			1800.12.20	paschal	duhalde mari	182	
etxart saubadine			1800.12.28		therese	175	
abadie jean		surrumuru	1801.01.27	jean	larramendi mari	187	
bizkai bernard		hirigoin	1801.03.16	gratien	bidart mari	191	
isuribehere bertrand		gelaritegi (?)	1801.04.28	laurent	mendibure mari	194	
satharitz bernard		mutxukotegi	1801.06.21	jean	jeanne	198	
etxeverri jean		joanmate	1801.07.01	salvat	mari	199	
lahar marie		landaburua	1801.10.08	jean	pothelo jeanne	207	
deguine etienne		helulategi	1802.01.26	arnaud	aldabe jeanne	213	
mendi pierre		hiriart	1802.02.24	jean	lamargue	216	
isuribehere marie			1802.03.01	pierre	hariztoi isabelle	217	
d'abadie valentin			1802.03.06	laurens	etxeverri	218	
durquet dominique			1802.05.26	dominique	laborde jeanne	225	
bidart mari		grabelarenia	1802.07.02	pierre	artxain mari	222	
amestoi jean		gastondegi	1802.08.18	dominique	jauregi mari	226	
harriet jean	aiherra	mendiburia	1797.08.05	jean	jauregi mari	1	
etcheverry bernard	aiherra	xapitela	1797.11.07	laurent	salart mari	7	
agarret jeanne	aiherra	itzaldegi	1797.11.17	salvat	mendi jeanne	8	+
art marie	aiherra	xapitela	1798.05.23	bertrand	pepedo catherine	35	etxean +
poxelu catherine	aiherra	oihenartia	1798.07.08	valentin	nart agnes	40	
etxeverri marie	aiherra	eiheralde	1799.03.25	françois	nar graciane de	83	
ozpital dominique	aiherra	berueta	1799.04.05	jean	nart	86	+
elizetxe bernard	aiherra	apextegibor	1799.04.16	martin	jelos catherine	87	+
vergez mari	aiherra		1800.06.20	jean	denart mari	149	+
harriet jean	aiherra	isuriborda	1800.07.08	jean	jauregi mari	151	+
elizetxe gracianne	aiherra		1800.07.13	martin	jelos catherine	154	+
mendilahartsu jeanne	aiherraenerri	1800.07.27	françois	kazabe mari	156	+
